

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2020ko zerga ordaintzeko borondatezko epea

Nik, Erika Letamendi Hurtado Arabako Donemiliagako Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut: 2020ko uztailaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko uztailaren 15etik abuztuaren 17ra.

B) Betearazte aldia: 2020ko abuztuaren 18tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

– Kutxabanken bulegoak.

– Laboral Kutxaren bulegoak.

– Internetez, Donemiliagako Udalaren web orrian: www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento (Nire ordainketa).

III. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Donemiliagako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2020ko uztailaren 6a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO